

# IGE-ko material osagarriak

 [concursoescolaronce.es/materiales-ampa](https://concursoescolaronce.es/materiales-ampa)

## Gure erronka

Gure ikastetxean desgaitasuna duten pertsonen inklusioa hobetzea.

Inguratzen zaituen gizartea eraldatzea.

Konturatzea gauzak aldatu ahal dituzula.

1. Hasteko gogoratu nahi dugu zer dakigun desgaitasunari buruz. Horrela, oroitzapenen kutxa zabalduko dugu berreskuratzeko ezagutu ditugun desgaitasuna duten pertsonak, bakarren bat ezagutu badugu, aipatu dizkizuten desgaitasuna duten pertsonak, edo besterik gabe gure bizitzako uneak zeinetan lesio edo istripuren bat dela eta behin-behineko mugak jasan ditugun mugikortasun, ikusmen, entzumen eta komunikazio alorretan, desgaitasuna duten pertsonen etengabe jasan ohi dituztenen antzekoak. Minutu batzuk hartu ditzakegu oroitzapen horiek berreskura ditzagun.

Jarraian, proiektatuko ditugu lekukotasun-bideoak ONCE Gizarte Taldearenak. Ikus-entzunezko pieza hauek desgaitasuna duten pertsonen errealitatea agerian jartzen dute, arlo gakoetako bakoitzean: Aisia, Hezkuntza, Enplegua eta Eskuragarritasun Unibertsala.

2. Gure helburua da proposamen bat egitea gure ikastetxea inklusiboagoa izan dadin. Horretarako, lagundu lezake lekukotasun hauek irakurtzeak:

Antoniok ez du galtzen saskibaloiko partidu bakar bat. Biziki atsegin du larunbatero bere lagunekin jolastera joatea. Antoniok gorpil-aulkia erabiltzen du lekualdatzeko. Bere gurasoak kezkatuta daude zeren ez dakite institutu berria egokituta dagoen Antoniok heziketa fisikoa klaseko gelakideekin batera praktikatu ahal izateko.

Luciak diseinua maite du. Lanbide heziketa ikasi nahi luke, arropa diseinatzaile bezala lan egin ahal izateko. Lucia gorra da. Ez daki ikasi nahi duen modulua egokituta dagoen.

Valeria zaratarekiko sentibera da. Gainerako ikasleek klasean bere aulkiak eta mahaiak mugitzen dituztenean, Valeriak mina sentitzen du, enbarazua baino gehiago, zaratarekin. Klasetik atera behar izaten du, bere onera etortzeko gune lasai baten bila. Gauza bera gertatzen da ikasleei jolasaldiaren hasiera eta amaiera abisatzeko egunero jotzen duen sirenarekin.

Ildek gogoko du bere ikastetxea, baina bertako eremu askoren erabilera ez du ezagutzen. Ildek autismoa du eta irudiekin komunikatzen da. Inoiz ez daki non dauden wc-a, logopedia edo arte guneak, zeren ikastetxean ez dago irudirik gela ezberdinak identifikatzeko.



3. Jarraian, solasaldi edo gogoeta kolektibo bat ezarriko dugu gure ikastetxean dauden edo etorkizun hurbil batean egon litezkeen desgaitasuna duten ikasle, guraso eta/edo irakasleen estali gabeko beharren gainean.
4. IGE-ren proposamena zehaztuz joateko, hiru Post-It esleitzen dizkiogu pertsona bakoitzari eta eskatzen diogu gehienez hiru estrategia edo neurri gogora ekartzeko, ikastetxean desgaitasuna duten pertsonen inklusioa hobetuko luketenak.
5. Jarraian, eskatzen diogu pertsona bakoitzari besteekin partekatzeko bere proposamenak. Onena da post-it horiek arbelean edo horman jartzen joatea, baliokideak diren proposamenak, beste batzuekiko hurbilen dauden haiek, etab. nabarmenduz. Horrela, proposamenen ikusmen mapa bat eskura izango dugu.
6. Taldeak hautatu behar du, aurreko urratsean bezala bozkatuz, proposamen bakarra ikastetxean desgaitasuna duten pertsonen inklusioa hobetzeko.